

HARREMANAK

Bezero gehiago erakarriko ditugu publizitatetik, baina gure bezeroekiko harremanari eutsiko diogu. Bezeroari arreta emateko zerbitzu pertsonalizatua ere izango dugu, arreta telefono bat webgunean jarriz eta dudak edo iradokizunak galdetzeko atal bat jarriz zalantzak argitu ahal izateko.

Publizitatea pertsona ospetsuen bidez egingo dugu, haiekin hitz egingo dugu gure aplikazioa bezeroei ikustera emateko, bezero berriak erakartzeko. Pertsona ospetsu horiek modarekin erlazionatuak egongo dira, bezeroak horrekin lotura estua dutelako.

Zerbitzu automatizatuaren bidez egitea erabaki dugu, hau da, gure appa deskargatzeko denda fisiko batera joan gabe egin dezakete, aplikazio baten bitartez. Baina armairua eta tableta erosteko denda fisiko baten bitartez, hau da, pertsonala. Horretarako harreman zuzena izango dugu elkarteekin, haiekin momentu guztian kontaktua mantenduz.

